



GAZTEENTZAKO ORKESTA GIDA CLIC JARDUERAK

(PURCELL-en temaren bariazioak eta fuga, op. 34)
BENJAMIN BRITTEN (1913-1976)

Miren Garralda
(mgarrald@pie.xtec.es)

Itzultzailea: Orixe Taldea
(orixe@arrakis.es)

Proposatzen ditudan jarduera hauek, beharbada, egokiak izan daitezke Benjamin Brittenen obra entzun eta gero zenbait puntu eta kontzeptu finkatzeko, nahiz eta Gazteentzako Orkesta Gida izeneko obra berez ere aski pedagogikoa den.

Ikasleek bakarkako entzunaldia egin eta gero, programa honen bidez landu daitezkeen alderdiak honako hauek dira: tresna familiak bereiztea, tresnen irudiak eta tinbreak bereiztea, ahodura mota ezberdinak, biolinaren atal ezberdinak... Horretarako, Clic programaren jardueraz baliatu gara: asoziazioak, buruhausgarriak, letra-saldak eta hitz-gurutzatuak.

Hona hemen programa osatzen duten jarduerak banaka azaldurik:

- 1.- Atariko karatularekin entzuten den doinuak Brittenen konposizioak oinarritzat harturiko Purcellen TEMA aurkezten du.
- 2.- Jarduera honetan ORKESTA aurkezten da AFINAZIOAren unean, eta, ondoren, tresna familia ezberdinak aurkezten dira: EGURREZKOAK, METALEZKOAK, HARIZKOAK eta PERKUSIOKOAK (Orkestaren atal ezberdinen gainean klik eginez gero, tresna familia ezberdinez jotako doinuak entzuten dira).
- 3.- Hurrena HAIZEZKO tresnak aurkezten dira: EGURREZKOAK ETA METALEZKOAK. (Tresnen gainean klik eginez gero, beren tinbrea entzun eta izena ikus daitezke).
- 4.- Gero buruhausgarriak datoz, metalezko tresnen ezaugarrietako batzuk lantzeko.
- 5.- Elkarketa edo asoziazio arrunta metalezko tresnen irudiaren eta tinbrearen artean: TRONPETA, TRONPA, TUBA eta TRONBOIA.
- 6.- Aurreko tresna horiek izena eta irudiaren arteko elkarketa edo asoziazio arrunta.
- 7.- Erantzuna idatziz osatu beharreko jarduera: agertzen den tresnaren deitura idatzi.
- 8.- Buruhausgarria egurrezko tresnen zenbait ezaugarriren inguruan.

9.- EGURREZKO TRESNEN familia. FLAUTA, OBOEA, KLARINETEA eta FAGOTAREN irudia eta deitura elkartuz.

10.- Asoziazio arrunta soinuaren eta irudiaren artean: OBOEA, KLARINETEA eta FLAUTA.

11.- Tresnen ezaugarrien eta irudien arteko elkarketa edo asoziazioa.

12.- Haizezko tresnen ahodurak eta irudiak elkartzeko asoziazio ariketa konplexua: BISELA, MIHISKA BAKUNA eta MIHISKA BIKOITZA.

13.- Haizezko tresnen ezaugarri eta moten arteko asoziazio konplexua: EGURREZKOAK ala METALEZKOAK.

14.- Haizezko tresnei buruzko letra-salda.

15.- Hitz gurutzatuak haizezko tresnen irudia, soinua eta hitzak lantzeko.

16.- Harizko tresnen ikerketa jarduera mota.

17.- Harizko tresnen sailkapena jotzeko eraren arabera: zimikatua, kolpatua eta igurtzia.

18.- Letra salda harizko tresnen izenekin: biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua.

19.- Biolinaren atalak: informazioa.

20.- Biolinaren atalak: elkarketa edo asoziazioa.

21.- Biolinaren atalak: erantzun idatzia.

22.- Perkusio tresnen aurkezpena.

23.- Tresnen irudia eta tinbrea elkartzea.

24.- Tresnak bere familien arabera sailkatzeko asoziazio ariketa.

25.- Ikerketa jarduera fuga entzuteko, parte hartuz doazen tresnak bereiziz.

26.- Fugaren zati ezberdinen soinua eta deskribapena elkartzeko ariketa.

Paketea deskonpaktatuz gero, jarduerak egokitu ditzake irakasleak, bere taldearen premien arabera.